

2022KO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNAREN KARIETARA EUSKARA SUSTATZEKO JARDUEREN KONTRATAZIOA ARAUTZEN DUTEN AGIRIAK
--

1. XEDEA

Agiri honek arautzen ditu aldeen eskubideak eta betebeharrak zehazteko zer akordio eta baldintza hartu behar diren aintzat arlo juridikoan, administratiboan, ekonomikoan eta teknikoan, Euskararen Nazioarteko Egunaren kariatara euskara sustatzeko jarduerak kontratatzeke, haurren eta gazteen artean eragin berezia izanen dutenak.

Zerbitzu-kontratu honen xedeari dagokion Kontratu Publikoen Hiztegi Komuneko nomenklatura (CPV kodifikazioa) honako hau da: 85312320-8 Aholkularitza zerbitzuak, Batzordearen 2013/2008 (EB) Erregelamenduan ezarritakoaren arabera.

Kontratua administratiboa izanen da, kontratugileak honako hauen mende geldituko direla: baldintza agiri honek ezartzen duena, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kontratazioa arautzen duten beste xedapen guztiak.

Halaber, baldintzetan jasotako jarduera guztiak agintari eskudunek une horretan adierazitako COVID 19 osasun-larrialdiaren ondoriozko segurtasun-neurrietara egokitu beharko dira. Jarduerak egitea ezinezkoa balitz, kontratua etena geldituko litzateke eta enpresa esleipendunak etendura gertatu arte egindako lanengatiko kalte-ordaina kobratuko luke, kontratazio publikoaren eta administrazio-izapideen arloko araudiari jarraikiz.

Lote bakarra eskaintzen da; izan ere, egin beharreko lanak proiektu beraren parte dira, eta lotura banaezina dago haien artean.

2. EGIN BEHARREKO LANEN BALDINTZA TEKNIKOAK

Programatzen diren euskara sustatzeko jarduerak ezaugarri hauek izan beharko dituzte:

Euskararen Nazioarteko Egunaren kariatara euskarazko kultur ziklo bat prestatuko da, zenbait arte-adierazpenek osatua, eta haren elementu nagusia ahozko hizkuntza izanen da.

Eragin berezia izan beharko du haurren eta gazteen artean.

Jarduerak zenbait arte-adierazpeni lotuta egon beharko dute. Besteak beste, ipuin kontalariak, magia, parke tematikoak, antzerkia edo beste batzuk erabil daitezke, baldin eta haien ardatza ahozko hizkuntza bada.

Jarduerak antolatzeke foru komunitateko geografia osoa hartu beharko da kontuan.

2022ko Euskararen Nazioarteko Egunari lotutako jardueren programazioak herri hauek jaso beharko ditu ekitaldiak egiteko: Erdialdeko eta Erriberako 16 herri (Castejón, Azkoien, Erriberri, Lodosa, Barasoain, Tuter, Viana, Zarrakaztelu, Zangoza, Lerin, Faltzes, Andosilla, Caparroso, Corella, Alesbes eta Sesma) eta Pirinioaldeko 5 herri (Luzaide, eta Erroibar, Erronkaribar, Zaraitzu eta Aezkoa ibarretako herri bana).

Aipatutako herrietakoren batean gutxienez ekitaldi bat egiterik ez dagoela frogatuz gero, Euskarabideari jakinaraziko zaio eta antzeko ezaugarriak dituen beste herri bat bilatuko da.

Programatzen diren jarduera eta ekitaldi guztiak abenduaren 3an ospatuko den Euskararen Nazioarteko Egunaren inguruan egin beharko dira, eta azaroaren 5etik abenduaren 11ra bitartean gauzatu beharko dira.

Jarduerak doakoak izanen dira. COVID-19a dela eta, jarduerak egiteko lekua eta modua egonen da lizitazioaren xede diren jarduerak gauzatzeko unean dagoen osasun-larrialdiko egoeraren mende, eta, beraz, jaso beharko du egoera posibleei emanen zaien erantzuna:

- a) Lehenetsiko da aurrez aurreko modua, eta kontuan hartu beharko dira osasun-agintariak gomendatutako urruntze- eta higiene-neurriak. Jarduketaren bat posible ez bada, beste kokapen bat bilatuko da hura egiteko.
- b) Herriren batean uste bada ekitaldian interesa izaten ahal duten ikusleen kopurua lokalaren edukiera baino askoz handiagoa dela, osasun publikoagatik ezarritako edukiera-murrizketekin, jarduketa bat baino gehiago eskainiko da, ahal dela.

Enpresa adjudikazio-hartzaileak izanen du ardura jarduerak garatzeko behar diren baliabide guztiak antolatzeke, eta lokalak erreserbatu eta dagozkien aseguruak hartzeko.

Bestalde, enpresak bere gain hartu beharko du koordinazio osoa udalekin eta udaletako kultura edo euskara zerbitzuekin, halakorik bada.

Enpresa adjudikazio-hartzaileak, une oro, Euskarabideari emanen dio jarduketan egoeraren eta eskatzen zaizkion gainerako xehetasunen berri.

Kultur zikloaren zabalkundeari dagokionez, enpresa adjudikazio-hartzaileak Nafarroako Gobernuak dagokion administrazio unitateari eman beharko dio horren berri eta harekin koordinatu beharko ditu zikloaren xehetasunak. Baliabideen plana Lehendakarietzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuko Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiko Komunikazio Zerbitzua-Gobernuaren Eledunaren Bulegoak egingen du. Baliabideen plan horrek gutxienez zabalkunde plan bat jaso beharko du, toki aldizkarietan, prentsan, irratietan eta sare sozialetan iragarkiak sartuz, eta publizitaterako materiala diseinatuz eta inprimatzeko plana eginez. Enpresa adjudikazio-hartzailea Komunikazio Zerbitzua-

Gobernuaren Eledunaren Bulegoarekin koordinatuko da, jarduketak programatzen diren herri guztietan zabalkundea egiten dela bermatzeko, bai tokiko aldizkari eta webetan, bai sare sozialetan.

3. KONTRATAZIO ORGANOA ETA UNITATE KUDEATZAILEA

Kontratazio organoa Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzailea da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren izenean eta hura ordezkatzuz. Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua izanen da organo kudeatzailea.

4. ADJUDIKAZIO PROZEDURA

Agiri honen xede den kontratua adjudikatuko da Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean ezarritakoaren arabera, prozedura irekia erabiliz. Espedientea tramitazio arruntekoa da.

5. EGIKARITZEKO EPEA

Kontratua betetzeko epea sinatzen den egunaren biharamunean hasiko da eta 2022ko abenduaren 11n amaituko, luzatzeko aukerarik gabe.

6. LIZITAZIOAREN GEHIENEO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Kontratuaren balio zenbatetsia 47.400,00 euro da, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 42. artikuluan ezarritakoaren arabera kalkulatuta.

Lizitaziorako gehieneko aurrekontua 60.000 eurokoa izanen da (BEZa barne).

Aipatutako gastua finantzatuko da 2022ko gastuen aurrekontuko "Euskararen aldeko jarrera eta erabilera sustatzea/Sensibilización y fomento del uso del euskera" izeneko B30002 B3200 2262 334102 partidaren kargura.

Ez da onartuko lizitazioaren aurrekontu horretatik goitiko eskaintzarik.

Ez da onartuko prezioak berrikusterik kontratua indarrean dagoen bitartean.

7. LIZITATZAILEEK BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK

Hautapen prozesuan parte hartzen ahalko dute jardute gaitasun osoa duten pertsona natural edo juridikoek, espainiarrek nahiz atzerritarrek, kontratatzeke debekurik edo bateraezintasunik ez badute eta interes gatazkan ez badaude. Betekizun horiek guztiak eskaintzak aurkezteko epea bukatzen den unean bete behar dira.

Euskarabideak kontratuak egiten ahalko ditu aldi baterako enpresa-elkarteeekin edo taldean parte hartzen duten pertsonekin, Kontratu publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 13.

artikuluari xedatzen diren baldintzetan. Taldeko parte-hartze hori agiri pribatu baten bidez egiaztatu beharko da, non lizitatzailleek batera aurkeztu nahi dutela adierazi behar baitute, bai eta bakoitzaren partaidetza portzentajea zehaztu, eta ordezkari edo ahalduen bakarria izendatu ere; azken horrek ahalmenak izanen ditu parte hartzaile guztien eskubideak erabiltzeko eta kontratutik eratorritako betebeharrak betetzeko, hura amaitu arte.

Aldi baterako elkarreak eratuta, edo batera parte hartzen duten lizitatzailleek erantzukizun solidarioa izanen dute.

Lizitazio eskaintza bateratua aurkezten duten enpresek ezin izanen dituzte bakarkako proposamenak aurkeztu, ez eta aldi baterako beste elkarre batean sartuta edo beste enpresa batekin elkartuta ere. Debeku hori hausten bada, ez da onartuko enpresa lizitatzaille arau hauleak sinatzen duen eskaintzarik.

Lizitazioaren ondorioetarako, aldi baterako enpresa elkarrean aurkezten diren enpresak eta batera parte hartzen duten pertsonen batasun horiek osatzen dituzten kideen izenak eta inguruabarrak adierazi beharko dituzte, baita kide bakoitzaren partaidetza ere, eta adierazi beharko dute kontratuaren adjudikazio hartzaile izatekotan aldi baterako elkarre gisara formalki eratzeo konpromisoa hartzen dutela. Kide bakoitzak egiaztatu beharko du ekiteko ahalmena eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa eta profesionala dituela, agiri honetan ezarritakoaren arabera.

Baldintza horiek egiaztatuko dira lizitatzaillearen erantzukizunpeko adierazpenarekin. Adierazpen hori agiri honen I. eranskinean dago.

8. KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

Lizitatzailleak kontratua egikaritzeko kaudimen ekonomiko eta finantzario aski duela frogatu beharko du, hau da, enpresak ekonomia eta finantza egoera egokia duela, halakoa non izaera horietako ezein gorabeherak ez duen arriskuan jarriko kontratua behar bezala egikaritzea.

Kontratu honetan, egiaztatuko da azken hiru ekitaldietan (2019-2020-2021) kontratuaren xedea baino goragoko jarduera-arloan izandako negozio-bolumen globalari buruzko deklarazio baten bidez. Deklarazio hori I. eranskinean jasoko da. Kontratuaren indarraldi osoan eutsi beharko zaio eskatutako kaudimen ekonomikoari.

Baterako parte hartzeetan, kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa batera aurkezten diren enpresetako edozeinek aurkezten ahaldu du, bai eta batasuna osatzen duten kide guztiak pilatuz ere.

9. KAUDIMEN TEKNIKO

Lizitatzailleak kaudimen teknikoa duela frogatu beharko du, hau da, kontratua behar bezala egikaritzeko gaitasun tekniko edo profesionala duela.

Kaudimena egiaztatzeko, erakunde lizitatzailleak aurkeztu behar du 2019., 2020. eta 2021. urteetan eman dituen zerbitzu nagusien zerrenda; zerbitzu horiek, betiere, izan behar dituzte kontratu honen xedearen ezaugarri berak edo antzekoak. Zerrenda horretan xehetasun hauek adierazi behar dira: zenbatekoa, data, eta zerbitzu horien hartzaile publikoa edo pribatua, betiere guztira lizitazio honetarako aurreikusitako aurrekontuaren antzeko zenbatekoa edo handiagoa osatzen badute, eta hartzaileak behar bezala gauzatu izanaren ziurtagiriekin abalatuta.

Ziurtapen hori ez da beharrezkoa izanen Nafarroako Gobernuari emandako laguntza zerbitzuen kasuan; halakoetan aski izanen da, besterik gabe, entitate horrentzat egindako zerbitzuak aipatzea.

10. ESKAINTZAK AURKEZTEA

10.1. TOKIA ETA EPEA

Proposamenak Lizitazio Elektronikoaren Nafarroako Plataformaren (hemendik aitzina, PLENA) bidez soilik aurkezten ahalko dira; era berean, PLENAREN bitartez egingen dira komunikazio oro eta interesdunek egin beharreko gainerako tramiteak.

Kontratazioaren Atarian argitaratutako lizitazioaren iragarkiaren bidez jotzen ahalko da PLENARA; handik, interesa duen edozein pertsonak deskargatzen ahalko du mahaigainerako aplikazioa. Horren bidez, zifratze mekanismo estandarrak baliatuz, eskaintzak prestatzen eta aurkezten ahal dira, gutun-azal digitalaren bidez, bai eta biltegi seguruan gorde ere.

Deskargatu ondotik, aplikazio hori baliozkoa izanen da PLENAREN bitartez beste edozein lizitazio egiteko.

Eskaintzak lizitazioa egingen duenaren mahaigainean zifratzen dira zifratzeko mekanismo estandarrak erabiliz. Behin aurkeztuta, biltegi seguruan gordetzen dira.

Eskaintzak aurkezteko epea lizitaziorako iragarkian finkatuko da, eta gutxienez 15 egunekoa izan beharko da, iragarkia Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratzen den egunetik kontatzen hasita.

Gutun-azalak irekitzeko unean epez kanpoko aurkezpen bat hauteman bada eta aurkezpen horren gainera arrastoren bat jaso bada, arrastoa baliozkotu egingen da; arrastoak aurkezpenarekin bat egiten badu eta eskaintza, halaber, luzatutako 24 orduko epearen barnean jaso bada, eskaintza baliozkotzat jo eta ireki egingen da.

Aldiz, arrastoak bat egiten ez badu, edo eskaintza jaso bada luzatutako 24 orduko epeetik kanpo, eskaintza baztertuko da eta ez da inoiz ere haren edukia irekiko.

Eskaintza epez kanpo aurkeztu bada eta enpresa edo entitate lizitatzailleak esaten badu eskaintza aurkeztean arazo teknikoak zeudela, eskaintza aurkezteko unean plataforman arazo teknikorik

egon zen egiaztatuko da. Aurkeztutako eskaintza onartuko da, bakar-bakarrik, plataformaren funtzionamendu arruntean gorabehera teknikoren bat gertatu bazen. Lizitatzaillearen ezagutza gabeziak edo Plataformarekin ikustekorik ez duten arazo teknikoek ez dute justifikatuko eskaintza denboraz kanpo aurkeztea, eta eskaintzak ez dira onartuko.

10.2. PROPOSAMENEN FORMA ETA EDUKIA

Enpresa lizitatzailleek Lizitazio Elektronikoaren Plataformak eskatzen dituen tramite eta inprimaki guztiak beteko dituzte eskaintzak aurkezteko.

Eskaintzak aurkezten edo/eta sinatzen dituzten pertsona fisikoak behar bezala identifikaturik egon beharko dira, eta ordezkari sinatzaileen kasuan, Lizitazioaren Plataforman jarduteko eta aritzeko baimena emanen dien ahalmen aski izan beharko dute.

Sinadura elektroniko aitortuarekin sinatuko da eskaintza. Sinadura elektroniko hori ziurtapen zerbitzuen emaille batek baliozkotasunez emana izanen da, eta agiriaren, eskaintzaren eta hari lotutako dokumentu guztien identitatea eta osotasuna bermatuko ditu, Kontratazio publiko elektronikoaren sinadura elektronikoari eta gainerako xedapenei buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legean xedatutakoaren arabera.

Eskaintza elektronikoari eranstean zaion banakako fitxategi bakoitzak 50 MB-ko tamaina izanen du, gehienez ere. Eskaintzaren tamaina osoa, dokumentu guztiak barne, 100 MB-koa izanen da, gehienez ere. Plataformak ez du mugarik jartzen eskaintza bati erants dakioken fitxategi kopuruan.

Erabili ohi diren formatuak onartuko ditu PLENak eskaintzaren aurkezpenean eranstean diren dokumentuentzat (doc, docx, xls, xlsx, ppt, pptx, rtf, sxw, abw, pdf, jpg, bmp, tiff, tif, odt, ods, odp, odi, dwg, zip.); bestelako formatuak dituzten artxiboak erantsi nahi badira, artxibo konprimitu batean (ZIP) bilduz eranstean ahalgo dira.

Plataformako formularioetan sartutako balio objektiboen eta irizpide bakoitza zurkaizten duten dokumentu atxikiaren artean desadostasunak badaude, entitate edo enpresa lizitatzailleak elektronikoki izenpetutako dokumentu eta eranskinek izanen dute lehentasuna.

Eskaintza nork egin duen alde batera utzita, eskaintza elektronikoa sinatu beharko du enpresaren edo entitatearen izenean eta hura ordezkatzuz kontratatzeke ahalorde askietsia duen pertsonak. Beraz, bi aukera daude:

- ☐ Eskaintza osoa elektronikoki sinatzen da, enpresa edo entitateko ahalduen ziurtagiriarekin, eta horrek baliozkotasuna emanen dio aplikazioaren inprimaketan sartutako informazio ekonomikoari.
- ☐ Edo eskaintza legezko pertsona baliozko baten ziurtagiriarekin sinatzen da (pertsona fisiko edo juridiko ordezkariaren baliozko ziurtagiria) eta ahalduak edo ahalduak sinatutako eskaintzaren dokumentu elektronikoak erantsiko dira.

Proposamenak aurkezteak erran nahi du pertsona edo entitate lizitatzailleak agiri honetako klausulak onartzen dituela baldintzarik gabe, bai eta erantzukizunpeko adierazpena ere, adieraziz aurkeztutako datu guztiak zehatzak direla eta lanen kontratazioarako eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituela.

Enpresa lizitatzailleak eskaintza ixten duenean, haren edukiaren arrasto bat –laburpen kriptografikoa– sortuko du eta eskaintza aurkeztu duela egiaztaturik geldituko da. Lizititzen duenak arazorik badu PLENA plataforman bere eskaintza aurkezteko tenorean, arrastoa –laburpen kriptografikoa– eskaintzak aurkezteko epemugaren barnean bidaliz gero kontratazio-organoari (Kontratazio Atarian ezarritako harremanetarako posta elektronikora), epea 24 orduz luzatuko da eskaintza osoa PLENAREN bidez jasotzeko eta aurkezpena osatutzat jotzeko. Beharkizun horiek bete ezean, ez da onartuko lizitazioaren iragarkian ezarritako epetik kanpo jasotzen den parte hartzeko eskaerarik.

Agiriak zer ekipotatik aurkeztu behar diren, komeni da ekipo horrek gehienez ere 5 minutuko desfasea izatea Nafarroako Gobernuko zerbitzariaren orduarekin.

Nafarroako Gobernuko zerbitzariak denbora unibertsal koordinatua (UTC) baliatzen dute, hau da, erreferentziako nazioarteko laborategiek mantentzen duten denbora eskala unibertsala, honako zehaztasun hau duena: +/- 1seg Hau izanen da, hortaz, zerbitzu elektronikoaren ordu ofiziala.

- Lehen mailako iturria: hora.roa.es (Armadaren Errege Institutua eta Behatokia: bi zerbitzari San Fernandon, Cadizen, eta hirugarren bat Madrilen)

- Bigarren mailako iturriak:

ocanon.inria.fr , INRIA, Paris

oi2t15.i2t.ehu.es, EHU

Lizitazio elektronikoaren plataforman eskaintza honetarako ezarritako egituraren arabera aurkeztuko dira lizitatzailleen proposamenak, eta hiru gutun-azal izanen dituzte, honela identifikatuta:

- A gutun-azala: dokumentazio orokorra.

- B gutun-azala: Irizpide kualitatiboak.

- C gutun-azala: formula bidez zenbatestekoak diren irizpideak.

Gutun-azal bakoitzean honako dokumentu hauei dagozkien artxibo elektronikoak sartuko dira:

A gutun-azala: “Dokumentazio orokorra” (Bakarra)

Lizitatzailleen erantzukizunpeko adierazpena, honako hauek frogatzen dituenak: administrazioarekin kontratatze beharkizun orokorrak betetzen direla, nortasuna, gaitasuna eta kaudimena. Horretarako, I. eranskinean ezarritako ereduak erabiliko da, eta agiri honen 9. atalean eskaturiko kaudimen teknikoko egiaztagiria aurkeztuko dira horrekin batera.

Aipaturiko adierazpenean, nahitaez paratu beharko da helbide elektroniko bat, jakinarazpen telematikoak egiteko.

- Batera edo enpresen aldi baterako elkarte gisara parte hartzen duten pertsonen kasuan, kide bakoitzak erantzukizunpeko adierazpen bana aurkeztu beharko du. Gainera, agiri pribatu bat gehituko da, non lizitatzailleek batera aurkeztu nahi dutela adierazi behar baitute, bakoitzaren partaidetza portzentajea zehaztu, eta ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu, kontratuak Amaitu arte sortzen dituen eskubideak erabili eta betebeharrak betetzeko ahalmenak izanen dituen. Lehiatzen diren enpresek eta ahaldunak sinatu beharko dute agiri hori.
- Azpikontratazioetan, lizitatzailleak erantzukizunpeko adierazpenean jaso beharko du, batetik, azpikontratisten zerrenda eta, bestetik, baduela agiri bat egiaztatzen duena konpromiso formal bat dagoela enpresa azpikontratista kontratua egikaritzera behartzeko ahalmena duten pertsonekin. Kaudimen tekniko edo ekonomikoa azpikontratazio bidez egiaztatzen bada, atal hauetan eskatzen den dokumentazioa

B gutun-azala: "Irizpide kualitatiboak"

Gutun-azal honetan, lizitatzailleak aurkezten duen dokumentazio tekniko guztia sartu behar da, Kontratuari buruzko Foru Legearen 97. artikuluekin bat. Irizpide kualitatiboak baloratzeko eta puntuatzeko erabiliko da dokumentazio hori, eta hartan azaldu beharko da zer prestazio egin beharko diren kontratua egoki egikaritzeko.

Laneko proposamen tekniko ere eduki behar du, lehen puntuan definituriko helburuei egokitua eta ezarritako baldintza teknikoei doitua.

Bertan zehaztuko da Euskararen Nazioarteko Egunaren kariatara euskara sustatzeko jardueren proiektua, haurrengan eta gazteengan eragin berezia izanen duena, eta, orobat, hura baloratzeko aurkeztu nahi diren gainerako agiriak, adjudikazio irizpideekin bat. Zehaztuko da zer jarduera egingen diren diziplina bakoitzean. Proposamenek honako hauek azalduko dituzte ahalik eta zehatzen: erabiliko diren kudeaketa eta koordinazioa, programazioa, metodologia eta dinamizazioa, eta kontratuaren barnean egin asmo diren balio erantsiko elementuak, eta zer baliabide erabiliko diren lana behar bezala amaitu dadin herri bakoitzeko jardueretarako ezarritako epean.

Era berean, adjudikazio-irizpideen arabera baloratu daitezkeen datuak ere sartu behar dira horiek kontuan hartzea nahi izanez gero, C gutun-azalean formulen bidez baloratu beharreko alderdiak sartu gabe.

C gutun-azala: "Formula bidez zenbatestekoak diren irizpideak"

Gutun-azal honetan adieraziko dira eskaintza ekonomikoa eta formulen edo puntuazio objektiboaren bidez objektiboki zenbatestekoak diren irizpideei buruzko eskaintza.

Lizitatzaille bakoitzak agiri honen II. eta III. eranskinetan ezartzen diren ereduen arabera jasoko ditu eskaintza ekonomikoa eta formula bidez zenbatesteak diren irizpideei buruzko eskaintza.

Proposamen ekonomikoa (II. eranskina) behar bezala sinatu beharko du pertsona edo entitate lizitatzailleak edo hura ordezkatzeko duenak, eta ezin izanen du gaintitu kontratu honetarako ezarritako gehieneko prezioa. Prezioak eurotan emanen dira eta ulertuko da barnean hartzen dituztela zerga eta tasa aplikagarri guztiak, baita sortzen diren gastu mota guztiak.

Eskaintza ekonomikoak egokia izan behar du adjudikazio-hartzailea gai izan dadin kasuan kasuko sektoreko hitzarmenaren aplikaziotik heldu den kostuari aurre egiteko, gutxienez ere; aintzat harturiko soldaten orduko prezioak ezin izanen dira inolaz ere apalagoak izan orduko prezioak, gehi hitzarmeneko orduko prezioari buruzko hobekuntzak gehi Gizarte Segurantzako kostuak baino.

Eskaintza prezioaren kalkulua barne hartuko ditu jardura egiteak ekarriko dituen ordainsari eta egiturazko kostu guztiak, besteak beste:

- Langileen ordainsariak. Gutxienez, Nafarroako bulego eta langelen sektorearen hitzarmen kolektiboan ezarritako soldata baldintzak bete beharko dira.
- Egiturazko gastuak, kontratu honen xedearekin zuzenki loturik badaude.

11. PROPOSAMENAK BALORATZEAZ ARDURATZEN DEN ORGANOA

Kontratua kudeatzen duen unitateko teknikarien ardura izanen da lizitatzailleak onartzea, eskaintzak baloratzea eta adjudikazio proposamena egitea.

12. DOKUMENTAZIOA ETA ESKAINTZAK BALORATZEA

Proposamenak aurkezteko epea bukatu ondoren, unitate kudeatzaileak A gutun-azalean aurkeztutako dokumentazio administratiboa kalifikatuko du.

Aurkeztutako dokumentazioa ez bada osoa edota zalantzaren bat sortzen bada, Lizitazioaren Plataformako jakinarazpenen modulua baliatuz eskatuko zaio eskaintza aurkeztu duenari dokumentazio hori osatzeko edo akatsak zuzentzeko, gutxienez bost egun naturaleko epean, errekerimendua jakinarazten den egunetik hasita. Izapide honetan aurkeztutako dokumentazioak inolaz ere ez ditu eskaintzaren baldintzak aldatzen ahal.

Dokumentazio administratiboa kalifikatu ondoren, unitate kudeatzaileak onartutako enpresen B gutun-azalak ("Irizpide kualitatiboak") ireki eta baloratuko ditu, aipatutako adjudikazio-irizpideen arabera.

Eskaintza kualitatiboen balorazioa egin eta gero, formula bidez zenbatestekoak diren eskaintzak gordetzen dituzten gutun-azalak irekiko dira eta Lizitazioen Plataforman jasoko da unitate kudeatzaileak eginiko balorazio teknikoaren emaitza.

13.- ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK

Kontratuaren adjudikazioa egingen da kostu-eraginkortasun irizpideei (prezioa) zein irizpide kualitatiboei jarraikiz, adjudikazioa kalitatearen eta prezioaren arteko erlaziorik hoberena duen proposamenari emateko asmoz, halakotzat harturik puntu gehien duen eskaintza adjudikazio irizpide hauek aplikatuta:

13.1. Irizpide kualitatiboak: proiektuaren balio teknikoa, gehienez ere 35 puntu.

a) Jarduketen kalitatea - Berrikuntza planteamenduan - Ibilbidea eta esperientzia - Hizkuntza kalitatea	15 5 5 5
b) Kultur zikloaren kudeaketa eta koordinazioa - Ukitutako administrazio edo eragileekin koordinatzeko prozesuaren eta bitartekoen deskribapena, lehendik dauden beste jarduketa batzuekin edo interes orokorreko ekitaldiekin gatazkak (espazio eta ordutegikoak) ekiditeko eta gure geografia osoan kultur zikloaren barnean egingen diren jarduera guztien egutegia eskaintzeko. - Kudeatzeko eta koordinatzeko baliabideak	20 15 5

13.2. Puntuazio objektiboaren bidez zenbatestekoak diren irizpideak: gehienez ere 65 puntu.

a) Proposamenaren jarduketak eta aniztasuna - Jarduketen kopurua: agirian ezarritako 21 jarduketetatik aurrera, 2 puntu gehituko dira 3 jarduketako. - 3.000 biztanletik beherako herrietan antolatutako jarduketak (0,5 puntu jarduketako) - Proposamenaren dibertsifikazioa: arlo eta obra-jarduketa ezberdinen kopurua. (0,5 jarduketa bakoitzeko)	30 20 5 5
---	---------------------------------------

b) Gizarte irizpideak - Langabezia dauden emakume gazteen (18-30 urte) kontratazioa. 2,5 puntu emanen dira lantaldeko kide bilakatzen den emakume bakoitzeko, gehienez ere 5 puntu lortu arte. - Desgaitasuna duten pertsonen kontratazioa. 2,5 puntu emanen da % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duen langile bakoitzagatik (kontratura atxikitako taldearen barnean egon beharko dute) eta, osotara, 5 puntu gehienez ere.	10 5 5
---	-----------------------------

c) Eskaintza ekonomikoa Gehieneko puntuazioa eskaintza merkeenari emanen zaio. Gainerako eskaintzek formula hau aplikatu ondoan ateratzen den puntuazioa izanen dute: Kontratuaren gehieneko aurrekontua – lizitatzaillearen proposamen ekonomikoa) BEZik gabe	25
×25 Kontratuaren gehieneko aurrekontua – Gutxieneko aurrekontua) BEZik gabe	
Eskaintza ekonomikoetako batek bat egiten badu lizitazioko gehieneko aurrekontuarekin, 0 puntu eskuratuko du.	

13.3. Eskaintza baxuegiak: Eskaintzak baxuegitzat joko dira lizitazioko gehieneko prezioarekiko beherapena % 25 baino gehiago bada; halakoetan, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 98. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

14. ADJUDIKAZIODUN GISA PROPOSATURIKO LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Behin adjudikazioaren proposamena modu elektronikoan jakinarazita, proposatutako lizitatzailleak edo lizitatzailleek 7 egun naturaleko epea izanen du edo dute honako dokumentazio hau aurkezteko Lizitazioaren Plataformaren bidez:

a) Nortasuna frogatzen duen agiria:

- Lizitatzaillea pertsona fisikoa bada, nortasun agiri nazionala edo erregelamenduaren arabera hura ordezkatzeko duen agiria.
- Lizitatzaillea pertsona juridikoa bada, eratzeko edo, halakorik bada, aldatzeko eskritura aurkeztu beharko da, dagokien erregistroan behar bezala inskribatuak.
- Proposamenak beste pertsona baten izenean aurkezten edo sinatzen dituztenek ordeztu beharko dituzte. Lizitatzaillea pertsona juridikoa bada, ahalordeak dagokion erregistroan inskribaturik egon beharko du, betebehar hori eskatzekoa denean aplikagarri zaion merkataritza arloko legeriaren arabera.
- Nafarroako Foru Komunitateko Lizitatzailen Borondatezko Erregistroan (apirilaren 19ko 174/2004 Foru Dekretuaren bidez sortua) inskribatuta dauden enpresen kasuan, lizitatzailleak ez du bere nortasunari edo ordezkariari buruzko agiririk aurkeztu beharko, baldin eta aurkezten baditu erregistro horretan inskribatuta egotearen ziurtagiriaren kopia, modu elektronikoan Internet bidez eskuratua, eta horren indarraldiaren gaineko erantzukizunpeko aitortpena.

b) Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren ziurtagiria, proposamenak aurkezteko epea amaitu baino gehienez ere hiru hilabete lehenago egin, lizitatzailerak Nafarroako Zerga Ogasunarekiko zerga betebeharrak eguneratuak dituela egiaztatzen duena.

c) Lizitatzailerak zerga Nafarroatik kanpora ordaintzen badu, aurreko puntuan aipatzen denaren antzeko ziurtagiria, Zerga Agentziak edo Foru Ogasunak egin.

d) Adjudikaziodunak Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eguneraturik dituela egiaztatzen duen agiria, proposamenak aurkezteko epea amaitu baino gehienez ere sei hilabete lehenago egin.

Behar diren agiriak epe horretan aurkeztu ezean, adjudikazioduna prozeduratik kanpo geldituko da, eta kontratuaren balio zenbatetsiaren % 5eko zigorra ordaindu beharko du, bai eta kalte-ordain osagarria ere, portzentaje horren gainetik eragindako kalte-galerengatik.

15. KONTRATUA ADJUDIKATZEA ETA FORMALIZATZEA

Unitate kudeatzaileak behar den adjudikazio-proposamena igorriko dio Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileari, kontratua adjudikatzeko ebazpena eman dezan. Proposamen horretan jasoko dira ezarritako irizpideak aplikatuz proposamen bakoitzari buruz egindako balioespenak, eta horren barrenean, berriz, proposamen onargarria egin duten lizitatzailen lehentasunaren hurrenkera, atera duten puntu kopurua zehaztuz eta adieraziz, hala behar badu, eskaintako zer hobekuntza eman diren onztat.

Adjudikazioa behar bezala arrazoitu beharko da, bai eta lizitatzailerak guztiei jakinarazi ere; gainera, horren eragingarritasuna etenda geldituko da 10 egun naturalean, adjudikazioaren jakinarazpena bidaltzen den egunetik hasita, eskaintza bakarra aurkeztuz gero izan ezik.

Kontratua agiri administratibo batean formalizatuko da, adjudikazioaren etete epea bukatu ondoko 5 egun naturaleko epearen barnean. Administrazioak eta kontratistak formalizatuko dute kontratua.

16.- KONTRATUA GAUZATZEA

16.1. Kontratua Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren gainbegiratze, ikuskatze eta kontrolpean gauzatuko da.

Lanak egikaritzeko dira klausula hauei eta langile arduradunek idatziz emandako jarraibideei loturik. Kontratistak une oro men egin beharko die indarrean dagoen legeriak Administrazio kontratugileari kontratua interpretatzeko, aldatzeko eta suntsiarazteko ematen dizkion ahalmenei.

16.2. Adjudikazio-hartzailea izanen da zerbitzua emateko hautaturiko langileen arduradun bakarra eta, beraz, inola ere ez dute kontratu edo lan harremanik izanen Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuarekin.

Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak beretzat gordeko du ahalmena enpresari eskatzeko zerbitzua ematen duten langileak ordezkari dituzan, non eta, bere iritziz, ez diren ari zerbitzua behar bezainbateko kalitate mailarekin ematen.

16.3. Kontratatzaren diren lanak egiteko behar diren langile guztiek euskara maila aski izan beharko dute esleitutako lanak egiteko; gomendatzen da Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparruko C1 mailako euskara titulua izatea.

Enpresak kontratua ongi gauzatzeko eta Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiko Komunikazio Zerbitzua-Gobernuaren Eledunaren Bulegoarekin, udaletako kultura edo euskara zerbitzuekin edo jarduketak programatu diren herrietako beste arduradunekin koordinatzeko behar diren ekipamendu, baliabide osagarri, lan bulego, gela eta langile guztiak jarri beharko ditu.

16.4. Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua aske gelditzen da, ondorio guztietarako, enplegaturiko langileekiko zernahi harreman funtzional, organiko edo lanekotik, kontratuaren indarraldian zein behin kontratua burututakoan.

16.5. Enpresa kontratistak Nafarroako Gobernuaren sinbolo ofiziala eta haren erabilera arautzen dituen urtarilaren 12ko 8/2020 Foru Dekretuak ezarritako betekizunak bete beharko ditu.

Halaber, kontratua gauzatzearen ondorioz ekoitzi edo zabalduetako zeinahi dokumentazio, iragarki, dibulgazio edo informazio materialetan adierazi beharko da Nafarroako Gobernuaren zerbitzu bat dela eta Nafarroako Gobernuaren sinboloa azaldu beharko da, baita Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren aipamena ere, erakunde kontratatzailea den aldetik.

17. LANEN ORDAINKETA

Ordainketa bakarra egingen da, lana burututakoan. Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuak egiaztatuko du lana behar bezala bete dela. Horretarako, enpresa adjudikazio-hartzaileak kontratuaren arabera gauzatutako lanen memoria bat aurkeztu beharko du, dagokien fakturarekin batera. Memoriak jardueraren inpaktua dimentsionatzen lagunduko duten datu objektibo eta kuantifikagarriak jaso beharko ditu (adib.: bertaratuen kopurua sexuaren arabera bereizita).

18. KONTRATUA BETETZEA

Pertsona edo entitate adjudikazio-hartzaileak ekintza eta ikastaro guztiak gauzatu beharko ditu kontratuaren epean eta kontratazioa zuzentzen duten pleguei eta eskaintzaren edukiari jarraiki. Kontratua bete dela egiaztatuko da Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren oniritziarekin.

18.1. Ez-betetzeak

Kontratistaren ez-betetzetat joko dira honako jokabide hauek:

Ez-betetze arinak

A.1 Agiri honetan eskatutako langileak edo baliabide materialak kontratua egikaritzean erabiltzeko edo horretara atxikitzeko konpromisoa ez betetzea.

A.2 Lanak entregatzeko epea ez betetzea.

Ez-betetze astunak

B.1 Kontratua akatsekin egikaritzea, hots, baldintza teknikoetan eskatutako kalitate mailara iritsi gabe.

B.2 Azpikontrataziorako ezarritako baldintzak haustea.

B.3 Kontratu kudeatzen duen unitateak emandako aginduak ez betetzea, hura egikaritzeari dagozkion gaietan.

C. Ez-betetze oso astunak

C.1 Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak ez betetzea.

C.2 Lan edo gizarte arloko betebeharrak ez betetzea langileei dagokienez.

C.3 Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko araudia ez betetzea.

18.2. Zehapenak

Kontratataren ez-betetzeak sailkapen honen arabera zigortuko dira:

- a) Ez-betetze arinak, adjudikazio zenbatekoaren % 1 gehienez.
- b) Ez-betetze astunak, adjudikazio zenbatekoaren % 1etik % 5eraino, kontuan hartuta kontratataren zabarkeriaren maila, ez-betetzeak eragindako kalteen garrantzi ekonomikoa edo berrerortzea.
- c) Ez-betetze oso astunak, adjudikazio zenbatekoaren % 5etik % 10eraino, kontuan hartuta kontratataren arduragabekeriaren maila, ez-betetzeak eragindako kalteen garrantzi ekonomikoa edo berrerortzea.

Ez-betetze oso astunen ondoriozko zigorra kontratuaren zenbatekoaren % 20 adinakoa izaten ahalko da, foru lege honen 66. artikuluan aurreikusitako kontratua egikaritzeko baldintza bereziak betetzen ez direnean.

Kontratistari ezartzen ahal zaizkion zigorren gehieneko zenbateko osoa ez da adjudikazio zenbatekoaren % 20 baino gehiago izanen. Ez-betetzeak eragindako zigorrak adjudikazio zenbatekoaren % 10 baino handiagoak direnean hasten ahalko da kontratatzekeo debekua deklaratzeko prozedura.

18.3. Arriskua eta mentura

Kontratua kontratataren arrisku eta menturara gauzatuko da eta hura egikaritzen ari den bitartean gerta daitezkeen galera, matxura edo kalteak kontratataren kontura izanen dira, batere ukatu gabe haietarako aseguruia egiteko aukera.

18.4. Kontratua egikaritzean eragindako kalte-galerak

Kontratua egikaritzearen ondorioz ondasun eta pertsonen (jabetzarenak nahiz hirugarrenenak) eragiten zaizkien kalte eta galera guztiak kontratatari egozten ahalko zaizkio. Foru Komunitateko

Administrazioak erantzunen du bere organoen berehalako eta zuzeneko aginduen ondoriozko kalte-galerengatik bakarrik.

18.5. Kontratistak lan araudia betetzea

Kontratuak errespetatu behar ditu lanari, Gizarte Segurantzari eta laneko osasun eta segurtasunari buruzko lege, erregelamendu eta hitzarmen mailako xedapenak, batik bat enpresa kontratistaren jarduerari dagokion sektoreko esparru apalena hartzen duen azken lan hitzarmen kolektibo sektorialean ezarritako baldintzak.

19. JABETZA INTELEKTUALA

Zerbitzua emateko web orri, webgune edo tresna interaktiboren bat sortu behar bada, haiek sortzeagatiko egile eskubideak Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuari lagako zaizkio, diseinu edo itxura grafikoarenak (erabiltzailearen interfazea), iturri-kodearenak eta edukienak barne.

20. DATUAK BABESTEA ETA KONFIDENTZIALTASUNA

Gai honi dagokionez, bete beharrekoa da Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hura garatzeko erregelamendua onesten duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuan xedatutakoa, bai eta horiek ordeztzen edo aldatzen dituzten arau guztiak ere.

21. ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ERREKURTSOAK

Kontratuaren adjudikazioaz, interpretazioaz, aldaketaz eta ebazpenaz sortzen diren auzigaiak kontratazio organoak ebartziko ditu, eta haren ebazpenen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztzen ahalko da, Nafarroako Gobernuari zuzendua, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita hilabeteko epean.

Nafarroako Gobernuak hartzen duen erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzen ahalko da Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egin ondoko egunetik hasita, hala xedatzen baitu jurisdikzio hori arautzen duen legeak, 46. artikuluan.

Nolanahi ere, lizitazioan interesa duten enpresek eta profesionalek, aukeran eta aurrekoen ordeztu, kontratazio publikoaren arloko erreklamazioa aurkeztzen ahalko dute kontratazio agirien aurka, izapide egintzen edo behin betiko egintzen aurka edo adjudikazio egintzen aurka, baldin eta egintza horien ondorioztu lizitaziotik kanpo gelditzen badira edo haien xedeei kalte egiten bazaie.

Erreklamazioa Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegian aurkeztzen ahalko da, hamar eguneko epean, aurkaratutako egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita, eta bakar-bakarrik funtsatzen ahalko da Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeak 124. artikuluan aipatzen dituen arrazoietan.

I. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA, EUSKARABIDEAREKIN KONTRATATZEKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA ADIERAZTEKO.

Izen-deiturak:

NANa:, posta elektronikoa:

Bere izenean / honako hau ordezkatzuz: (..... IFK)

(ezabatu behar ez dena).

Bere erantzukizunpean adierazten du:

1) Berak edo ordezkatzuz duen entitateak betetzen dituela Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 14. artikuluan jarduteko, gaitasun juridikoa edukitzeko eta ordezkari izateko ezarritako baldintzak.

2) Kontratazioa arautzen duten agiriak ezagutzen eta onartzen dituela eta horiek gauzatzeko hitza ematen duela, baldintzei hertsiki loturik.

3) Ez dagoela Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 13. artikuluko kontratatze debeku egoeretako batean.

4) Egunean dituela Gizarte Segurantzako eta zerga arloko betebeharrak guztiak.

5) Betetzen dituela kontratuaren xede diren jardueren esparruan eskaturiko kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta negozio bolumena, eskura dauden azken hiru ekitaldietan. Hona hemen:

URTEA	ZENBATEKOA
2019	 euro
2020	 euro
2021	 euro

6) Betetzen dituela kontratuaren xede diren prestazioak gauzatzeko eskaturiko lege baldintzak.

7) Betetzen dituela eskaturiko kaudimen tekniko eta profesionaleko baldintzak eta, ondorio horietarako, adierazten du honako zerbitzu hauek egin dituela:

URTEA	XEDEA	HARTZAILEA	ZENBATEKOA
2019			
2020			
2021			

*Ezinbestekoa da, adierazpen honekin batera, aipaturiko zerbitzuen frogagiriak aurkeztea, lan horien hartzaile izan diren entitateek emanak.

8) Nafarroako Foru Komunitateko edozein ordenatako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen dela prozeduraren ondoriozko gorabehera guztietarako, legokiokkeen jurisdikzio-foruari uko eginik.

9) Helbide elektroniko hau ematen duela, prozeduraren fase guztiekin loturiko jakinarazpenak bide telematikoen bidez egin ahal izateko:

10) Aurreikusten duela ondoko prestazioak azpikontratatzeko. Ondorio horietarako, azpikontratisten adostasun adierazpenak atxikitzen dira (Soilik azpikontratazioa aurreikusten bada).

PRESTAZIOA	AZPIKONTRATISTA

Adierazpen honetan aipatzen diren inguruabarrak betetzen dira eskaintzak aurkezteko epearen bukaeran.

(Tokia, data eta sinadura)

II. ERANSKINA

PROPOSAMEN EKONOMIKOA

Izena: _____ NANA edo IFZ: _____ Helbidea: _____

Telefonoa: _____ nire izenean edo honen
izenean: _____ arituz, Euskararen Nazioarteko Egunaren kariatara euskara sustatzeko
jarduerak egiteko laguntza teknikoaren kontratazioari dagozkion proiektua eta administrazio klausulen eta
zehaztaperen teknikoaren agiria ezaguturik, hitzemanden dut zehatz-mehatz beteko dudala baldintza horietan
ezarritakoa eta, orobat, eskaintza hau egiten dut:

PREZIOA

_____ euro (gehi BEZa).

Iruñean, 2022ko _____ aren _____ (e)an

III. ERANSKINA

PUNTUAZIO OBJEKTIBOAREN BIDEZ ZENBATESTEKOAK DIREN IRIZPIDEAK

a) Proposamenaren jarduketa kopurua eta aniztasuna	Gehienez 30 puntu	
- Aurreikusitako jarduketen edo jardueren kopurua, agirian ezarritako nahitaezkoen gain. (20 puntu bitarte)	Obra edo jarduketa	Jarduketen kopurua, obra edo jarduketa ezberdin bakoitzeko
Jarduketen kopurua, guztira	_____	
- 3.000 biztanletik beherako herrietan antolatutako jarduketen kopurua. (5 puntu bitarte)	_____	
- Proposamenaren aniztasuna, arlo eta obra ezberdinei dagokienez. (5 puntu bitarte)	Arloa	Obra
Kopuru osoa	_____	_____
b) Gizarte irizpideak	Gehienez 10 puntu	
Langabezian dauden emakume gazteen kontratazioa. (5 puntu bitarte)		Izen-abizenak - -
Desgaitasuna duten pertsonen kontratazioa. (5 puntu bitarte)		Izen-abizenak - -

IV. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO LIZITATZAILEEN ERREGISTROAN JASOTAKO DATUAK EZ DIRELA ALDATU ADIERAZTEKO*

Izena: _____ NAN zenbakia: _____ , Nafarroako Foru Komunitateko Lizitatzzaileen Erregistroan _____ zenbakiarekin izena eman duen enpresaren _____ gisa (1), neure erantzukizunpean aitortzen dut Lizitatzzaileen Erregistroak dituen enpresaren datuak indarrean daudela eta ez direla deus ere aldatu, eta Nafarroako Foru Komunitateko Lizitatzzaileen Erregistroko inskripzioaren ziurtagirian, _____ zenbakiko espedientean, agertzen direnak berak direla. Ziurtagiria agiri honi erantsia dago, Euskararen Nazioarteko Egunaren kariatara euskara sustatzeko haurrengan eta gazteengan eragin berezia izanen duten jarduerak egiteko laguntza teknikoaren zerbitzua kontrataatzeko lizitazioan parte hartu ahal izateko.

(1) Adierazi administratzailea edo ahaliduna den.

(Tokia, data eta sinadura)

* Informazio gehiago hemen: www.navarra.es (urratsak: zerbitzuen katalogoan, kontratazioen barruan eta haiekin zerikusia duten esteketan, jo Lizitatzzaileen Borondatezko Erregistrora)

V. ERANSKINA

TALDEKO PARTAIDETZARAKO EREDUA

.....jaun/andreak,NANa/IFZ duenak,
jakinarazpenetarako helbide hau duenak:
....., PK:
....., herria:, telefonoak:, bere izenean /
..... sozietatearen ordezkari gisara (dagokion bezala), IFZ:
.....

Eskaintza taldean elkarturik parte hartzen duten lizitatzailleek aurkeztuz gero,
adierazi kasu bakoitzean bidezkoa dena:

o Aldi baterako propio eratzen diren enpresari elkarteetan aurkezten
dira. ☐ Bai ☐ Ez

o Taldean elkarturik aurkezten dira. Halakoetan adierazi parte hartzea
haietako bakoitzean. ☐ Bai ☐ Ez

Enpresaren izena:..... ⇒ ☐ Participación%

Enpresaren izena:..... ⇒ ☐ Participación%

(Erantzukizunpeko adierazpena egitean datu faltsuak emateak debekua ekarriko du
kontratatzeko, Kontratuei buruzko Foru Legearen 22. 1i) artikuluan ezarritakoaren
arabera).

(Tokia, data eta lizitatzaillearen edo lizitatzailleen sinadura)

Kontratu honetarako kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa frogatzeko, "Dokumentazioa administratiboa" izeneko A) gutun-azalean
negozioen bolumen osoari buruzko adierazpen bat aurkeztuko da, aztertzen ahal diren azken hiru ekitaldietakoa, gehienez ere,
hautagai edo lizitatzaillearen jarduerak sortu edo hasi ziren egunaren arabera, negozio bolumen horren erreferentziak eskura dauden
heinean. Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa frogatzeko irizpidea lizitatzaille edo hautagaiaren urteko negozio bolumena izanen da.
Bolumen horrek, amaitutako azken hiru urteetan negozio bolumenik handiena izan duena hartuta, gutxienez kontratuaren urteko
gehieneko zenbatekoa halako bi izan beharko du, hau da, 1.526.600,00 euro, BEZik gabe.

e) Kaudimen teknikoaren edo profesionalaren egiaztapena. Horretarako, zerrenda aurkeztuko da zehaztuz zein diren pertsona edo
enpresa lizitatzailleak azken hiru urteetan egin dituen laguntza nagusietan kontratu honen xedearren ezaugarri berdintsuak dituztenak.
Horietako bakoitzaren zenbatekoa, data eta hartzaile publikoa edo pribatua azaldu beharko da.
Ziurtapen hori ez da beharrezkoa izanen Nafarroako Gobernuari egindako laguntzen kasuan; halakoetan aski izanen da, besterik
gabe, entitate horrentzat egindako hornidurak aipatzea.